

Motibatzailea



Koldo Aldalur
KAZETARIA

Suposatzen dut profesional mailako kirol munduan, ohiko entrenatzaileez gain, psikologo, fisio, podologo, homeopata, kiropraktiko, akupunturista, musikoterapeuta, ileapaintzaile, estilista, sasimediku eta era guztietako petrikilo eta abarren artean motibatzailearen figura ere izango dela. Badakizue, eliteko kirolari berezko nagai aski sufrituak lanerako gogorik ez duenean, galtza motzak janzteko arrazoi bat aurkituko dion pertsona.

Gure herrian badugu bat fin askoa: Juan Mari, inoiz kirolik egin ez duen kirol aditua. Fenomenoa berean.

Han egoten da plazako paisaiaren parte bailitz, udaletxeko erlojupeko eserleku luzean norbait motibatzeke prest. Beti lanerako.

Ea. Jaiki zara goizean goiz ohearen epela utzita eta goiz osoko mendi buelta eman duzu udazkeneko lokatz eta ehiztarien tiro hots artean, eta ezusteko zaparradaren ondorioz tximu eginda herrira itzuli zarenean, hor duzu motibatzeke esaldi bat oparitzeko erne:

– Marka ederra egingo huen gaur ere. Deituko zieat Mendi Film Festibalekoei erreportaje bat egin nahi baditek ere.

Edo hartu duzu bizikleta eta iragarrita ez zegoen hego haizearen aurka lepondoa erabat behartu eta gero, derrigorrez erlojupetik pasatu behar izan duzunean, zera gogoratuko dizu:

– Bizikleta horrek zerbait badik, derrigorrez. Edo frenoaren takoek gurgila ukitzen ditek, edo katea ez zebilek behar bezala pinoien hortzetan,

bestela ez duk posible daramaan martxa. Egun batean lo hartu behar duk gainean hoala!

Eta saiorik egiteko aukerarik ez izanda ere ez da askoz goxoagoa izango motibatzailearen aholku beti eraikitzailea:

– Berriro ere ibiliko haiz hi taldekoei segitu ezinik. Jakina, hamarrak arte lo egingo huen. Seguru nagok nahiago huela dentistanean goiza pasa, eserita egotekotan, jakina, izerdi tanta bakarria atera baino.

Nahiz eta berari natural-natural ateratzen zaion Juan Marik kobratu egin beharko luke egin duen motibazio lanagatik.

Hamaika aldiz gertatu izan zait kilkeraren atzealdea baino beltzagoko ekaitza kolpetik agertu izanaren ondorioz, aurrez pentsatutako lekuraino joan edo ez, zalantzan nabilenean, neurre buruari esatea: “Hoa gora bestela Juan Mari nonbaitetik enteratuko duk eta jesusenak entzun beharko dituk”. Eta ahalegina egiteaz ez naiz sekula santan damutu.

Beraz, *wearable* teknologia eskuragai izango duzu, sentsore adimendunak lagun, eta titanio dioxidozko nanotuboak bezalako kontzeptuak menperatuko, baina horiek ez dute balio berez alperre den gorpuzteku akuilatzeke. Galdetu bestela aste honetan bertan jokalaria motibatzen lanak izan omen dituen lehen mailako futbol entrenatzaileari.

Juan Mari sartu dezala aldagelan. Epelak entzun beharko dituzte, entrenatzaileak berak, eta jokalariek. ■

Pisua eta hegalkak



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetxe

Garikoitx Goikoetxeak esana da, *Euskara irabazteko bidean* liburuaren egileak: “Gazteei buruz hitz egiterakoan, hasi beharko genuke haien gain uzten dugun erruaren zama kentzen”. Izan ere, nork nahi du errudun sentiarazten duen diskurtso bat? Liseriketa errazagokoa da erakargarritasunaren diskurtsoa, bere aldaera mainstream zein hipsterragoetan.

Milan Kunderak azaltzen du kontzeptu antagoinoak erraz kokatu daitezkeela polo positibo eta negatibotan: argia-iluna, beroa-hotza, izatea-ez izatea... Salbuespen bakarrarekin: pisua eta

arintasuna. Eta oroitu naiz eskola batean ikusitako irudiaz: Obelix, bere obeliskoa bizkarrean, eta obeliskoaren barruan esaldi koloretsu bat: “Euskaraz bizi nahi dut”. Eta eskola bereko atarian euskararen txantxangorria kristalean, arina izanagatik hegaldatzeko hego txikiak dituena.

Ez dakit nolakoa behar duen euskalgintzaren “diskurtso berriak”, baina arinkeraren eta astuntasunaren artean eremu bizigarri bat sortu beharko du, tokian tokikoa eta unean unekoa. Kontua ez baita euskarak pisua badaukan ala ez daukan. Kontua da ea hegan egiteko balio digun. ■